

Ukitutako zerbitzuak

Aurkibidea

| | |
|--------------------------------|---|
| 1. Definizioa..... | 3 |
| 2. Udal sareak..... | 3 |
| 2.1. Ur hornidura sarea..... | 3 |
| 2.2. Saneamendu sarea | 3 |
| 2.3. Euri uren sarea..... | 3 |
| 2.4. Elektrizitate sarea | 4 |
| 3. Trafikoa | 4 |
| 4. Gainontzeko sareak | 4 |

1. Definizioa

Eranskin honen helburua proiektua burutzerakoan eraginik jasango dituzten zerbitzuak zeintzuk diren eta eragina zein izan daitekeen aztertzean da. Era berean, jasandako eraginak zein ondorio izango dituzten ere ikasiko da.

2. Udal sareak

Atal honetan, zein udal sare eragin edo aldatuko diren aztertuko dira eta esan bezala eraldaketak zer nolako ondorio izango dituen.

2.1. Ur hornidura sarea

Polikiroldegiko behar bezalako funtzionamendurako ur hornidura ezinbestekoa den heinean, udal ur hornidura saretik ur hori hartu beharra dago. UR HORNIDURA ETA SANEAMENDUA eranskinean kalkulatu egin dira bai eraikinak beharrezkoa duen ur emaria eta baita udal sareko hartunetik polikiroldegiko kontagailuetara joango den hodiren diametro eta luzerak.

Udal ur hornidura sarera egingo den konexioa hartune batetik egingo denez gero, sarearen egiturak ez du aldaketa handirik jasango. Aitzitik, honen funtzionamendua eten beharra dago, ahalik eta denbora tarte txikiena, bai hartunean konexioa egiteko bai eta egin beharreko frogak gauzatzeko ere. Hartunea udal sareko bigarren mailako adarkatze batetik datorrenez, Bermeoko errepide azpitik datorren adarretik irtendakoa, bertara konektatutako eraikin bakarrak jasango du etenaldia, egun ALCAMPO den hipermerkatuak.

2.2. Saneamendu sarea

Polikiroldegiaren erabilera normalak eragindako uren tratamendurako, bilketarako erabili den saneamendu instalaziotik udal saneamendu sarera bideratu beharra dago. UR HORNIDURA ETA SANEAMENDUA eranskinean kalkulatu egin dira bai eraikinak egoera maximo batean sarera isuriko duen emari maximoa eta bai barne instalaziotik konexio gunera doan hodiaren diametro eta luzerak.

Kasu honetan, udal saneamendu hornidura sarera egingo den konexioa arketa baten bidez gauzatuko da. Hau dela eta, udal sareak nahiz eta aldaketa handirik ez izan konexio puntu horretan diseinuan aldaketa jasango du. Era berean, honen funtzionamendua eten beharra dago, bai arketaren instalazioarentzako bai egin beharreko konprobazioak egiteko ere. Konexioa udal saneamendu sarearen adarkaduretako batean gauzatuko da, ondorioz ez da eraikinik egongo eraginik gauzatuko dituenik.

2.3. Euri uren sarea

Polikiroldegiaren gainean eragingo duten euri uren bilketak euri uren udal sarera bideratu beharra dago. UR HORNIDURA ETA SANEAMENDUA eranskinean kalkulatu egin dira bai eraikinak egoera maximo batean biltzen dituen euri uren emaria eta emari guzti hori udal sarera bideratuko dituen hodiaren diametro eta luzerak.

Kasu honetan, udal saneamendu hornidura sarera egingo den konexioa arketa baten bidez gauzatuko da. Hau dela eta, udal sareak nahiz eta aldaketa handirik ez izan konexio puntu horretan diseinuan aldaketa jasango du. Era berean, honen funtzionamendua eten beharra dago, bai

arketaren instalazioarentzako bai egin beharreko konprobazioak egiteko ere. Hartunea udal sareko bigarren mailako adarkatze batetik datorrenez, Bermeoko errepide azpitik datorren adarretik irtendakoa, bertara konektatutako eraikin bakarrak jasango du etenaldia, egun ALCAMPO den hipermerkatuak.

2.4. Elektrizitate sarea

Polikiroldegiko behar bezalako funtzionamendurako elektrizitatearen hornidura ezinbestekoa den heinean, udal elektrizitate saretik hartu beharra dago. INSTALAZIO ELEKTRIKOA eranskinean, zenbateko potentzia hartu behar den adierazita dago.

Kasu honetan, barne instalazio elektrikoaren eta udal sarearen lotura gauzatzerakoan, sarearen etenaldia egin beharra dago segurtasun aldetik, bai eta beharrezkoak diren konprobazioak egiteko ere. Hartunea udal sareko bigarren mailako adarkatze batetik datorrenez, Bermeoko errepide azpitik datorren adarretik irtendakoa, bertara konektatutako eraikin bakarrak jasango du etenaldia, egun ALCAMPO den hipermerkatuak.

3. Trafikoa

Trafikoari dagokionez, bai kamioien bai makinariaren joan etorri edota maniobren eraginez hau moztea ezinbestekoa suertatzen da. Aitzitik, eraikinaren (eta ALCAMPO hipermerkatuaren) bai ipar zein hego aldeetatik pasatzen da bide bana, bidearen eta eraikinaren artean bestelako eraikinik edo oztoporik gabe. Horregatik bi egoera ezberdinetan moztu beharra dago trafikoa Aritz kaleko erdi batean edo bestean obrak irauten duen bitartean.

Batetik, makinaria zein materiala garraiatzerako orduan. Kasu honetan, garraitu beharrekoa iparraldean edo hegoaldean utzi behar den kalearen erdi bat edo bestea moztuko da, beti ere erabiltzaileei ALCAMPO hipermerkatu eta gasolindegira arazo gabe pasatzen uzten zaielarik.

Bestetik, makinariaren maniobra edo obraren gauzapenerako antzekoa gertatzen da. Ahal den heinean behintzat, obraren partida ezberdinetan kalearen erdi bat edo beste moztuko da ahalik eta eragozpen gutxien sortzekotan.

Horrela beraz, trafikoari dagokionez esan daiteke eraginik jasan ditzakeen bakarra ALCAMPO hipermerkatua dela. Kasu gehienetan ordea, trafikoaren mozketa ez da totala izango eta beraz erabiltzaileek bide batetik do bestetik bertaratzerik izango dute.

4. Gainontzeko sareak

Talde honetan sartzen dira proiektua honen gauzapenean afektaturik agertzen ez diren gainontzeko udal sareak. Hauetako gehienak, gas, telefonia eta Internet sareak esaterako, eragindako sareak bezalaxe adarkaturik agertzen dira lursail inguruan Aritz Kalean lurperatuta. Aitzitik, obran bertan suertatu daitekeen arazoez aparte, ez dute inongo eraginik jasoko bere erabilera arruntean.

Bestetik, esan beharra dago bai telefonia bai Internet sareak seguruenik eraikinaren nondik norakoak kontuan izanda, eragina jasango luketela egoera arruntean. Hau da, bulego zein harreretan telefono eta Internet zerbitzua normalean beharrezkoa izaten bada ere, proiektu honen gauzapenean kontuan izan ez direnez ez dira eragindako sareen artean kokatu.